

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak 62,5 milioi euro inbertitu du 1986. urtetik Santiago bideko monumentuak zaharberritzen

Hala baieztatu du Sánchez de Muniáin kontseilariak Santiago bideari buruz Izuran (Nafarroa Beherea) egindako Bi Nafarroen Mintegiko X. edizioan

Martes, 28 de octubre de 2014

1986. urtetik gaur arte, Nafarroako Gobernuak guztira 62,5 milioi euro inbertitu du Santiago bideko monumentuak zaharberritzen, eta haietako zenbait oso garrantzitsuak dira, esaterako: Orreagako Kolegiata, Iruñeko Katedrala edo Lizarrako San Pedro de la Ruako Eliza, eta tamaina txikiko beste asko baina ibilbide guztian esanahi handia dutenak.

Hala azpimarratu du bigarren lehendakariorde eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáinek Izuran (Nafarroa Beherea. Pirinio Atlantikoetako Departamentua. Frantzia) egindako Bi Nafarroen X. Mintegian, Santiago bidean oinarritutakoa.

Kontseilariak Bidea sustatzeko beste ahalegin batzuk aipatu ditu, esaterako: eliza nagusiak zabaltzea bisitari gehien dabilen aldietan; mapak eta beste argitalpen batzuk argitaratzea; ibilbidearen trama fisikoa hobetzea eta haren mugarriak nazioarteko azoketan eta dibulgaziozko euskarrietan zabaltzea; ahalegin horiei esker, erromes eta turisten goranzko joera finkatzen ari da.

Sánchez de Muniáin izan da 40 pertsonen osatutako Nafarroako ordezkariaren buru, eta ordezkari horren barnean izan dira: parlamentariak, alkateak, Santiago bideko elkarteetako kideak, Nafarroako Kultura Kontseiluko kideak eta kazetariak; haien artean zegoen ere, Iruñeko alkate Enrique Maya.



Izuran egin den Bi Nafarroen Mintegiko X. edizioan parte hartutako ordezkariak.

Segizioa 10:00ak aldera heldu da Nafarroa Behereko hiri horretara; leku horretan Santiago bide frantseseko hiru ibilbide garrantzitsuk bat egiten dute, eta X. mendetik eta Erdi Aroan zehar Santiago alderako ibilbideko erromesen etapa garrantzitsuenetako bat bihurtu zen. Izurak 5.000 bidaiari hartzeko bi hotel, bi ostatu eta hogeitasei aterpetxe izan zituen XIV. mendearen erdialdera.

Done Jakueren bidea mintegia honetan hiru hitzalditan aztertu da. Lehena, San Nikolasi buruzko "Harambeltzeko kaperaren zaharberritzea"-ren gainean izan da, 984. urtean eraikitako priorato-ospitale zaharretik kontserbatutako eraikin bakarra, 2001. urtean "Monumentu Historiko" izendatutakoa eta berriki zaharberritu dena. Bigarrena, Nafarroako Gobernuak Ondarearen Zerbitzuko arkitekto Leopoldo Gilek eman du "Orreaga. Ospitale bat bidean" izenburuarekin.

Gainera, Santiago bideari buruzko hirugarren hitzaldi bat izan da, bide nahiz elkartzeen eszenatoki modura; Nafarroako Alderdi Sozialistako parlamentari eta Nafarroako Donejakue Bideko Lagunen Elkarteko lehendakariorde Victoria Arraizak eman du.

Jardunaldia ekitaldi instituzional batekin amaitu da, eta bertan honako hauek izan dira: bigarren lehendakariorde eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin; Izurako alkate Daniel Olçomendy; Nafarroa Zaharreko Lagunen Elkarteko lehendakari Louis Gentien; eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko Marie Pierre Cabanne. Amaieran, Nafarroa eta Izurako segizioak Harambeltzeko kapera bisitatu dute.

Galería de fotos



Ezkerretik eskuinera: Coste, Olçomendy, Sánchez de Muniáin lehendakariordea eta Gentien.



Sánchez de Muniáin lehendakariordea Nafarroako ezkutua duen koadroa bat Izurako alkateari ematen.